

ATENTATUA ORION

JUAN PRIEDE PEREZ
(PSE-EE-REN ZINEGOTZIA ORION)

Orioko asturiarra

Jakes Goikoetxea |

Juan Priede Perezek mende erdia baino gehiago zeraman Euskal Herrian. Asturiasen jaio zen eta politikak zuzenean baldintzatu zuen bere haurtzaroa: aita, irakasle errepublikazalea, preso egon zen 18 urtez Santoñan (Kantabria). Giro sozialistan hazi zen eta 17 urterekin egin zuen PSOEko karneta.

Oso gazte zela utzi zuen, ordea, jaioterria. La Union y el fenix aseguru konpainian lan egin zuen, Asturiasen, baina «soldata handiagoak eta gaztetasunak bultzatuta» Bilbora etorri zen. Bertan ezagutu zuen emaztea, Angelines, eta ezkondu egin ziren. Bilbotik Oiartzunera jo zuten, Lanbarri baserri-
ra: «Inguruko erdaldun baka-
rrak ginen arren, oso ondo kon-
pontzen ginen auzokide guztie-

kin», esaten zuen Juan Priedek. Oiartzundik, lanak behartuta, Donostiara jo zuten. Bertan zirela, enpresa itxi eta Aian aurkitu zuen lana, bertako bolborategian. Bizi, berriz, Orion bizi ziren (sereno lanak ere egin zituen Orion). Familia ere Orion sustraitu zuten: bertan jaio ziren beren hiru seme-alabak, Ana, Carlos eta Javier. Aiako bolborategia itxi zutenean familiak Bilbo aldera jo zuen berriz, Gallartara. Hala ere, Orio zuten go-
goan. Juan Priede Gallartan alargundu zen. Bertan jubilatu zen. Eta Oriora itzuli zen, jubila-
zioa gozatzerako.

Baina jubilatu ostean erantzukizun politikoak hartu behar izan zituen Orion, bertako zinegotzi sozialistak kargua utzi ostean: «Norbaitek hartu behar zuen bere lekua, eta neroni izendatu ninduten».

Berak kargua hartu zuenerako EAJ, EA eta sozialistek osatutako hirukoak zuzentzen zuen Udala eta Juan Priede hirukoan integratu zen, gogotsu baina indar politiko gutxirekin. Aurrerago, ordea, hirukoaren arteko harremanak gaiztotu eta oposizioa hiru alderdiek —EAK, PSE-EEK eta Batasunak— elkarrekin hitz egiteari ekin zioten, EAJri aurre egiteko. Elkarrekin asko hitz egin zuten, baina ez zuten akordioarik sinatu, Juan Priederen esanetan, «terrorismo kontuengatik».

Priedek oso bizimodu lasaia zeraman Orion: erosketak, paseoak, bidaiak alderdiaren Donostiako egoitzara, eguerdiko eta arratsaldeko poteoak, plenoak eta batzordeak... Azkenaldian, ordea, bi bizkartzain jarri zizkioten: baina batzuetan ihes egiten zien bizkartzainei.

KARKARA

UMORE ONEKOA. Juan Priede umore onekoa eta adeitsua zen. Ohikoa zen Orioko kaleetan paseatzen ikustea.

ORIOKO HERRI ALDIZKARIAN JUAN PRIEDERI EGINDAKO ELKARRIZKETA

Priedek Euskal Herriko egoeraren gordintasuna azpimarratzen du, baina baita itxaropena azaldu ere.

■ **Ondo hartua sentitu al zara Orion?**

Jakina. Orion oso ondo sentitu naiz. Ez dut sekula arazorik izan inorekin. Jendeak badaki sozialista naizela; baina ez dut gorabehera pertsonalik izan horrengatik.

■ **Hona etorri zinenean, nola-
koa zen egoera politiko eta
ekonomikoa?**

Egoera politikoa oso txarra zen. Diktadura batean bizi ginen: ezin zen hitz egin, dena zen delitu, ez zegoen adierazpen askatasunik. Ekonomikoki, berriz, Euskal Herriko egoera Espainiako beste lekuekin konparatuz gero, ez zen hain txarra. Lana bazegoen, nahiz eta ez zen askorik ordaintzen.

■ **Noiztik zara PSOEko militantea?**

Klandestinitate garaitik naiz PSOEko militante: 1953an ateranuen karneta, 17 urte nituela.

■ **Frankismoaren kontrako giroan hazi zinen, ezta?**

Bai. Aita maisua zen, errepublikazalea, eta 18 urte eman zituen preso Santoñan. Aitaren aldekoak denak ziren sozialista eta errepublikazaleak. Amaren partetik, berriz, alderantziz, eskuintekoak ziren. Halere, gure amakontu hori ondo eramaten jakin zuen. Bost senide ginen eta gure haurtzaroan aita preso

«Euskal Herriko egoera konpontzeko momentua ailegatu beharko du»

Karkara-k, Orio eta Aiako herri aldizkariak, iazko otsailean egin zion elkarrizketa Juan Priederi. Hona hemen Rikardo Uzkudun kazetariak egindako elkarrizketaren zenbait pasarte.

ezagutu genuen. Anaietako bat, gainera, kartzelan jaiotakoa da: ama erditzeko zegoela bisitan joan zen batean jaiotakoa.

■ **Azken urte hauetan, berriz, zinegotzi izan zara Orion; nolatan?**

Lau urte daramatzat Udalean: aurreko legealdian, bi urte, eta oraingoan, beste bi. Luis Cisnerosek kargua laga zuenean, kanpora joan zen, hemen mehatxatua zegoenez oso gaizki sentitzen baitzen. Orduan, norbaitek hartu behar zuen bere lekua, eta neroni izendatu ninduten. Hasieratik, Orioren alde lan egitea izan da nire eta alderdiko lagunaren ilusioa.

■ **Bestela, nola ikusten duzu Euskal Herriko egoera politikoa?**

HERRIA

“ «Orion oso ondo nago. Jendeak badaki sozialista naizela, baina ez dut arazorik izan horrengatik»

PP-PSOE HARREMANA

“ «Ez zait gustatzen PPrekin gertutasunik izatea, baina nork eragin du hori? Horixe da arazoa»

Egoera politikoa, memento honetan, lehertzeko modukoa da; batzuetan, oso arriskutsua ere bai. Nahikoa inkonformista naiz izatez, eta uste dut ailegatu beharko dela mementoa hau konpontzeko. Baina oso zaila ikusten dut, konfrontazio maila oso handia baita gaur egun. Halere, ez dut datozen hauteskundeetan konfiantza gehiegirik; ez badago alderdien arteko akordio-
rik, oso-oso zaila ikusten dut.

■ **Posible ikusten al duzu PSE eta EAJren arteko akordio berri bat?**

Sekula ezin da ezetz esan, eta lehen ere hirukoak eman zion egonkortasuna herri honi. Baina arazoa da EAJk engainatu egin gintuela; alegia, ez zela frankoa izan, nora joan nahi

zuen esateko. Gaur egun horrek pisu handia du oraindik. Zalantzarik gabe, garrantzitsua izango litzateke niretzat horrelako akordio bat, PPrekin batera, eskuinarekin joatea ez baitut gustuko. Ez dakit aurten nola bukatuko den kontua, baina nik konfiantzarik ez dut batere.

Euskal Herritarrokek, berriz, aldatu egin beharko du akordio batera iristeko; bortizkeria alde batera laga beharko dute. Nik ez dut uste EHko guztiak igualak direnik. Hori bai, banda armatu bat dago, izugarritzko fanatismoa dago...

Egia esan, guri, oinezko politikoei, eskuetatik alde egiten dizkigute horrelako kontuek.

■ **Ez al duzu ikusten zure alderdiaren eta PPren artean euskal abertzaletasunaren kontrako frontetik?**

Bai, jakina, baina ez dut fronte horrekin bat egiten. Niri ez zait gustatzen PPrekiko inolako gertutasunik izatea, eta uste dut Euskadiko oinarritzko militantzia ez dela ildo horretakoa. Baina, nork eragin du hau? Horixe dago arazoa. Hemen etapa nahiko interesgarriak izan ziren Euskadi mailan; baina, gero, azkeneko hilketekin, gauzak okertu egin ziren. Nazionalismoa pentsatzeko era bat da, eta eskubide osoa du nahi duena eskatzeko; baina garbi hitz egin behar dute: nazionalista demokratikoek garbi hitz egin behar dute.